

Euskal Administrazioen diru-sarrerak %4,6 murriztu ziren 2011n

2011ren bukaeran zor bizia 7.600 milioi ziren, aurreko urtean baino %12 gehiago

Euskal Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko eta azpiko erakundeekin batera) diru-sarrerak %4,6 murriztu ziren 2011n 2010aren aldean eta gastuak %2,5, Eustaten datuen arabera.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2010-2011

mila euro	2.010	2.011	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	17.219.198	16.419.485	-4,6 %
Eragiketa Arruntak	14.020.472	14.468.215	3,2 %
-Zerga Sarrerak	12.015.888	12.233.479	1,8 %
PFEZ	4.207.908	4.416.909	5,0 %
Sozietate-zerga	987.314	1.201.775	21,7 %
BEZ	4.276.594	4.239.282	-0,9 %
Zerga Bereziak	1.445.072	1.384.206	-4,2 %
Udal-zergak	670.094	667.751	-0,3 %
Bestelako Zergak	428.906	323.556	-24,6 %
-Bestelako sarrera arruntak	2.004.584	2.234.736	11,5 %
Kapital-eragiketak	562.413	440.142	-21,7 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	14.582.885	14.908.357	2,2 %
Finantza-eragiketak	2.636.313	1.511.128	-42,7 %
GASTUAK GUZTIRA	17.178.072	16.746.373	-2,5 %
Eragiketa Arruntak	13.587.302	13.771.394	1,4 %
Langileria Gastuak	3.455.355	3.417.553	-1,1 %
Transferentzia Arruntak	4.785.883	4.901.493	2,4 %
Bestelako Gastu Arruntak	5.346.064	5.452.348	2,0 %
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	3.024.748	2.273.918	-24,8 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	16.612.050	16.045.312	-3,4 %
Finantza-eragiketak	566.022	701.061	23,9 %
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	433.170	696.821	60,9 %
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	-2.029.165	-1.136.955	-44,0 %


Iturria: EUSTAT. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak

Diru-sarrera korranteak %3,2 hazi ziren eta kapital-eragiketengatikoak %21,7 murriztu. Oro har **eragiketa ez-finantzarioen diru-sarrerak** %2,2 hazi ziren 2010aren aldean.

Guztizko gastuak %2,5 murriztu ziren 2010aren aldean; zehazkiago, **gastu ez-finantzarioak %3,4 murriztu ziren**. Pertsonal-gastuak %1,1 murriztu ziren, eta inbertsio eta kapital-transferentzienak %24,8. Transferentzia korronteen gastuak %2,4 hazi ziren, beste gastu korronteak %2,0, finantza-eragiketenak %23,9; azken hauek gastu guztien %3,3 ziren 2010ean eta %4,2 2011n.

Diru-sarreraren eta gastuen bilakaera honek ekarri du eragiketa-saldo korronteak hobera egitea, %60,9, 2010eko 433,2 milioitik 2011ko 696,8ra. Kapital-eragiketak baturik saldo ez-finantzarioa lortzen da; honek ere hobera egin du, -2.029,2 milioitik 2011ko -1.136,9ra, hau da, saldo negatiboa %44,0 murriztu da.

1. grafikoa. Euskal administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2011 urtea (%)



Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Diru-sarreraren analisiak erakusten du 2010 eta 2011ren artean %0,9 jaitsi zirela BEZ-eskubide onartuak, zerga guztien %35,6tik 2011ko %34,7ra pasa ziren. PFEZren kopuruak gora egiten du zerga diru-sarreraren artean, 2010eko %35,0tik 2011ko %36,1era; kontu-sail hau %5,0 hazi zen 2010 eta 2011ren artean. Sozietateen zergaren kopurua %21,7 hazi da, 2010eko 987,3 milioitik 2011ko 1.201,8ra; aurreko urteetan ez bezalaxe, orduan %20 inguru jaisten baitzen. Ondorioz haren parte-hartzea ere hazi da, 2010eko %8,2tik 2011ko %9,8ra.

Zerga bereziak %4,2 murriztu ziren 2011ren aldean, udal-zergak %0,3 eta gainerakoak %24,6.

Euskal Administrazioetako zor bizia 7.616 milioi ziren 2011ko abenduaren 31n, 2010ean baino %12 gehiago. Igoera hau txikiagoa da lehengo urtekoa (%48) baino; izan ere, pasibo berriak sortu baziren ere, hauek %49,4 txikiagoak izan ziren 2010ean sortuak baino; bestalde, 2011ko amortizazioak %52,6 handiagoak izan ziren 2010ekoak baino.

BPGrekiko zorra 2010ko %10,4tik 2011ko %11,5era igo zen.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2011. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	14.468.215	8.447.704	2.372.368	7.397.720	4.321.513
GASTU ARRUNTAK	13.771.394	8.738.865	2.189.398	6.754.271	4.159.950
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	696.821	-291.161	182.970	643.449	161.563
KAPITAL SARRERAK	440.142	273.682	51.130	148.447	119.954
KAPITAL GASTUAK	2.273.918	1.178.212	187.244	625.577	435.956
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	-1.136.955	-1.195.691	46.856	166.319	-154.439
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 08-12-31)	7.616.015	4.900.287	489.280	1.364.033	862.415

Iturria: EUSTAT. Sektoe publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal Administrazio Publikoetako enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtuta, 2010eko 122.348etatik 122.522ra gehitu zen. Eusko Jaurlaritza, Foru-aldundiak, Tokiko Erakundeak, gehien bat hauen menpeko erakunde autonomo, ente eta sozietate publikoak, partzuergoak, fundazio eta irabazi asmorik gabeko instituzioak eta unibertsitatea dira multzoaren osatzaileak. Lanbideren sorreraren eragina deskontatuz gero, zeinak eskumen berriak bereganatu baitzituen 2011n, enplegua %0,5 murriztu zen 2010aren aldean.

2011ko abenduaren 31n langileen %60,6 emakumeak ziren, %39,4 gizonak. %67,2 langile finkoak ziren.

Administrazio publikoetako langileei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ohar metodologikora jo:

http://es.eustat.es/document/datos/Nota_met_personal_2011_e.pdf

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

**EUSKAL AEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEI BURUZKO PRENTSA-OHAR
GEHIAGO**

EUSKAL AEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEN GAINEKO DATU-BANKUA